



EIBARKO GARBIGUNEA. DEBABARRENA ESKUALDEKO MANKOMUNITATEAREN ARLO  
PUBLIKORA ADSKRIBATZEA. LANAREN GAUZATZEAZ BADESA ARDURATUKO DA  
2.012ko maiatzaren 23ko, Batzar Nagusiaren hitzarmena

Presidenteak igorritako hitzarmenaren proposamena azaltzen da, orokorrean baiestuta izan dena, hurrengo HITZARMENA hartuz.

Lehen. BADESA sozietateak egin beharreko prestazioak arautzen ditu erabaki honek, bitarteko propioa eta Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen zerbitzu teknikoa denez, hiri-hondakinak kudeatzeko eraturikoa, besteak beste, sozietatearen xedean deskribaturikoaren arabera betiere. Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen eta BADESAren artean sorturiko eskubide eta betebeharrak ere arautzen dira.

Aurrekoari jarraiki, BADESAri agindu dio Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak, hark onartuta, kudeaketa-zerbitzu hori bere izenean eta sozietatearen kontura egiteko, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak zehaturiko moduan eta baldintzetan egingo dena, erabaki honen eta ondorengo aginduei jarraiki. Erregimen eskusiboan emango du zerbitzua sozietateak, azpiegituren finantzaketa, egikaritzapena eta amortizazioa ahalbidetzeko.

Bereziki, BADESAk bere gain hartzen duen kudeaketa-aginduak EIBARKO GARBIGUNEA azpiegitura finantzatzeko eta sortzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren jardueren multzoa bilduko du.

Bigarrena. ZERBITZU PUBLIKOARI LOTURIKO AZPIEGITUREI BURUZ

Propio edo hirugarren baten bidez BADESAk dagokien eraikuntza bere gain harturiko azpiegiturak, zerbitzu publikoari lotuta dauden neurrian, eta akordio honen arabera arauturiko kudeaketa-aginduaren ondoriozko direnez, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen jabari publikoaren zati dira abiarazi zenetik eta une bakoitzean indarrean dagoen legerian hori ezartzen den bitartean.

Era berean, sozietateak zerbitzua emateko ezinbestekoak diren neurrian, ondasun horien erabilera pribatibo eskusiboa BADESAri atxiki ahalko zaio zerbitzua emateko horretarako aurreikusitako epemuga bete arte.

BADESAk ez dio kontraprestazio ekonomikorik ordainduko Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateari eskuratzeko-kostuaren osagarri gisa erabiltzen lagatzeagatik.



Hori gorabehera, ondasunak lagatzeko epea amaitutakoan, itzultzeko unean dauden egoeran itzuliko dizkio BADESAK Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateari.

Hirugarrena. Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 36.1 artikulua aplikatuta, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak dagozkion erregistroetan inskribatu behar ditu bere ondareko ondasun eta eskubideak, jabari publikokoak edo ondarezkoak direla, inskriba daitezkeenak direla, baita horiei buruzko egintza eta kontratu guztiak erregistro horiek balia baditzakete, eta sozietateak ere obligazio bera hartuko du.

Era berean, erabaki honi jarraiki sozietateak eraikitako azpiegitura bat zerbitzuan jartzen denean, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak eta sozietateak berak iragarki bat argitaratuko dute Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta bertan zehaztuko dituzte Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen jabari publikoan biltzen diren ondasunak eta dagokien epera atxikipena sozietatearen alde, baita esanguratsu irizitako beste edozein zirkunstantzia ere.

Laugarrena. BADESAK urtero aurkeztuko dio Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateari laga dizkion jabari publikoko ondasunen zerrenda eguneratua.

Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen idazkariak urteko txosten bat landuko du eta bertan Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen ondarearen kudeaketan indarreko legeria eta erabaki honetan zehazturiko baldintzak betetzen ote diren.

Eibarren, 2.012ko ekainak 1

PRESIDENTEA  
Arcadio Benítez Dávila